Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2822

AGINDUA, 2009ko maiatzaren 4koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa ebazteko dena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.d) artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, eta sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragarri zuen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2009ko apirilaren 21eko Aginduaren laugarren oinarrian agindutakoaren arabera (apirilaren 7ko EHAA, 67. zk.), hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Alberto Elguea Bilbao jauna Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari izendatzea (kodea: 520010; dotazioa: 107).

Bigarrena.– Izendapen honek 2009ko maiatzaren 7tik aurrera izango ditu ondorioak.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta bere aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 4a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

2822

ORDEN de 4 de mayo de 2009, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se resuelve la convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en este Departamento.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 46.2.d) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y en la base cuarta de la Orden de 21 de abril de 2009 (BOPV n.º 67, de 7 de abril) de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se anunciaba convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en este Departamento,

DISPONGO:

Primero.– Nombrar a don Alberto Elguea Bilbao, Secretario de Alto Cargo, código 520010, dotación 107, en la Dirección de consumo y Seguridad Industrial.

Segunda.– Su nombramiento surgirá efectos a partir del día 7 de mayo de 2009.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse, recurso potestativo de reposición ante la Excma. Consejera de Industria, Comercio y Turismo, en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de mayo de 2009.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.